

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Genero-indarkeriari buruzko informazio-puntu ibiltaria Lizarran jarri da martxan gaur Nafarroan zehar egingo duen ibilbidearen barnean

*"Nafarroak ezetz dio" puntu ibiltariak aholkularitza eta orientazioa emango ditu ere Iruña, Elizondo, Tafalla, Tuter, Zangoza eta Altsasun abenduaren 8a bitarte*

Asteartea, 2016.eko azaroak 22

"Nafarroak ezetz dio" informazio-puntu ibiltaria gaur jarri da martxan Lizarran, eta [foru-geografiako hainbat udalerrri](#) bisitatuko ditu emakumeenganako indarkeriari buruzko informazioa eta aholkularitza emateko. Ekintza Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez, antolatutako [kanpainaren](#) barnean sartzen da, azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta.



Genero-indarkeriari buruzko informazio-puntu ibiltaria Lizarran ekin dio bere ibilbideari.

Puntu horretan pertsona bat izango da, eta hark indarkeriari buruzko eta Nafarroan gaur egun dauden baliabideei buruzko informazioa eskatzen duten emakumeei arreta eta orientazioa emango die, bai eta herritar guztiei ere. Bestalde, kanpainarako argitaratutako informazio-liburuxkak interesa duten guztien esku jarriko dira, eta esku lilaren paparrekoak banatuko dira. Ekintza horrek "La Caixa" Gizarte Ekintzaren laguntza du.

### Udalerrriak, datak eta ordutegia

Euskarri ibiltaria 16:00etatik 20:00etara izango da zabalik ondorengo udalerrietan:

- Lizarra: azaroak 22 eta 23
- Iruña: 24, 25 (baita 12:00etatik 13:00era ere, Nafarroako Gobernuak deitutako elkarretaratze isilaren ondoren) eta azaroak 26..
- Elizondo: azaroak 28 eta 29
- Tafalla: azaroak 30 eta abenduak 1
- Tuter: abenduak 2 eta 3
- Zangoza: abenduak 5 eta 6

- Altsasu: abenduak 7 eta 8